

## Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak urrezko maila aitortu dio HUHEZlri

2009/07/13

Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak goreneko maila aitortu dio HUHEZI fakultateari, **urrezkoa**, euskara kudeatzen duen moduagatik. Nahiz eta fakultatean hiru hizkuntzatan irakasten den --euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez--, **euskara da erabilera hizkuntza**, eta lan prozesu guztiak horren arabera antolatuta daude, Bikain Ziurtagiriak egiaztatu duen bezala.



Bikain ziurtagiri ofizial, publiko eta doakoa da, Eusko Jaurlaritzak luzatzen du, eta egiaztatzen du enpresa nahiz erakunde batean euskarak zer presentzia, erabilera eta kudeaketa duen.

Ziurtagiria eskura daiteke ebaluazio bat eginda, HUHEZlren kasuan bezala. Ebaluazio horretan egiaztatzen da **EMEn** (Erreferentzia Marko Estandarrean) jasotako itemak zein hizkuntzatan dauden eta nola kudeatzen diren, besteak beste. Ebaluazioari dagokionez, EMEk lau ardatz ditu:

Erakundearen komunikazioa eta irudi korporatiboa

1. Kanpo harremanak
2. Barne harremanak
3. Hizkuntza kudeaketa